



HERRIKO KONTSEILUKO ERABAKIA ORTZAIZEKO HERRIA

2022ko martxoaren 1eko bilkura

Bi mila eta hogeita batgarren urtean eta 2022ko martxoaren lehenean, zortziak eta erdietan, herri honetako Herriko Kontseilua, erregularatasunez deitua izanik, legeak manatzen duen kopuruan bildu zen, Herriko etxeko gelan, Jean-Marc OÇAFRAIN Auzapezaren lehendakaritzapean

Hor zirenak : AYÇAGUER Elorri, CHAMALBIDE Corinne, DACHAGUER Peio, FALXA Odile, GOICOECHEA Iñaki, IDIART Claudine, IÑARRA François IRIART Jean Claude, JORAJURIA Ramuntxo, LEKUMBERRY Xantxo, MATEO Jean François, OÇAFRAIN Jean-Marc, PERUSANSENA Elodie

Barkatuak zirenak : CASIRIAIN Elena, HEGUY Antton

Bilkurako idazkari izendatua izan da : FALXA Odile

Deialdiaren eguna : 2022ko otsailaren 25a

Afitxatze eguna : 2022ko otsailaren 25a

13. ERABAKIA: BASERRIALDEKO ELEKTRIKATZEA – “Herriko argien zaharberitze (SDEPA) - 2021eko zaharberitze” programa Herriko parte diruztatzeko proiektua onartzea 21EP056 zk. dosierra Nomenklatura: 9,1

Jaun auzapezak herriko kontseiluari jakinarazten dio Pirinio Atlantikoetako ENERGIA SINDIKATUari ondoko obrak aztertzea eskatu diola: **Herriko argiak “Gahardou” 2. postuaren BT indartzeari lotua - ENEDIS ARAZO FITXaren segida.**

Energia Sindikatuaren lehendakariak herriari jakinarazi dizkio egin beharreko eta Groupement SDEL – CETELEC enpresaren esku utzitako obren gastuak.

Jaun auzapezak zehazten du obra horiek “Baserrialdeko Elektrikatze / HE zaharberitze (SDEPA) - 2021eko zaharberitze” programan sartuak izanen direla; herriko kontseiluari gastuen zenbatekoa onartzea eta obrak diruztatzea proposatzen dio.

Jaun auzapezaren azalpenak entzun ondotik, eta eztabaidatu ondotik, herriko kontseiluak:

- **ERABAKITZEN DU** gorago aipatutako obrak eginaraztea eta ENERGIA SINDIKATUaren esku uztea.

- **ONARTZEN DU** egin beharreko obren eta gastuen zenbatekoa, horrela osatuak:
 - Obren zenbatekoa BEZa barne
33 640.21 €
 - Obralaritza laguntza, obralaritza eta ustekabekoak 3.364. 02 €
 - SDEPA kudeaketa gastuak 1.401. 68 €

OROTARA 38 405.91 €
- **ONARTZEN DU** eragiketaren aitzinikusitako finantzabidea, horrela osatua:
 - Sindikatuaren parte hartzea 21 000.00 €
 - BEZaren ordainsari funtsa 6 070.17 €
 - Herriak funts librean gainean finantzatu beharreko obretan parte hartzea
9 934.06 €
 - Herriak kudeaketa gastuetan parte hartzea (funts librean gainean finantzatu beharrekoak) 1.401. 68 €

OROTARA 38 405.91 €

Herriaren parte hartze finkoa finkatua izanen da obren behin betiko zenbatekoa finkatu ondotik.

Gainera, Herriak obretan parte hartzea "Funts librean gainean" diruztatzen baldin badu, SDEPAk aurrerakin bat edo batzuk eskatzen ahalko dizkio, egindako obren arabera.

- **ONARTZEN DU** herrilurretako jabari pribatuaren gaineko urrikako zortasuna, baita SDEPAk energia aurrezteko ziurtagiriak berreskuratzea ere, obrak hautagarriak direnean.
- **HELARAZTEN DIO** erabaki hori legezkotasun kontrolari.

Kide kopurua : 15
 Hor zirenen kopurua : 13
 Balizko boz kopurua : 13
 ALDE : 13
 KONTRA : 0
 ABSTENTZIO : 0

Hala erabakia, gaineko egun, hilabete eta urtean. Bertaratu diren kideek sinatu dute erregistroan. Araberatasunez ziurtatu erabakia.

ORTZAIZEn, 2022ko martxoaren 1ean
 Auzapeza,
 Jean-Marc OÇAFRAIN

Betegarria bilakatu den akta,
 2022/03/14an publikatu edo notifikatu ondoan,
 Eta Prefeturan pausatu ondoan 2022/03/14an.

